AURKIBIDEA

Azaroaren 29an, **ABENDUALDIKO I. IGANDEA** 6

Abenduaren 6an, **ABENDUALDIKO II. IGANDEA** 7

Abenduaren 8an, **MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SORTZE GARBIA** 8

Abenduaren 13an, **ABENDUALDIKO III. IGANDEA** 10

Abenduaren 20an, **ABENDUALDIKO IV. IGANDEA** 11

Abenduaren 25ean, **JAUNAREN JAIOTZA** 12

Abenduaren 27an, **FAMILIA SANTUA: JESUS, MARIA ETA JOSE** 17

Urtarrilaren 1ean, **JAINKOAREN AMA MARIA SANTUAREN FESTABURUA** 19

Urtarrilaren 3an, **EGUBERRI ONDORENGO II. IGANDEA** 21

Urtarrilaren 6an, **JAUNAREN AGERKUNDEA** 22

Urtarrilaren 10ean, **JAUNAREN BATAIOA** 24

Urtarrilaren 17an, **URTEAN ZEHARREKO II. IGANDEA** 25

Urtarrilaren 24an, **URTEAN ZEHARREKO III. IGANDEA** 26

Urtarrilaren 31n, **URTEAN ZEHARREKO IV. IGANDEA** 27

Otsailaren 7an, **URTEAN ZEHARREKO V. IGANDEA** 28

Otsailaren 10ean, **HAUSTERRE EGUNA** 30

Otsailaren 14an, **GARIZUMAKO I. IGANDEA** 31

Otsailaren 21ean, **GARIZUMAKO II. IGANDEA** 32

Otsailaren 28an, **GARIZUMAKO III. IGANDEA** 33

Martxoaren 7an, **GARIZUMAKO IV. IGANDEA** 35


Martxoaren 14an, **GARIZUMAKO V. IGANDEA** 36

Martxoaren 21ean, **JAUNAREN NEKALDIKO ERRAMU IGANDEA**..... 38
Martxoaren 25ean, **JAUNAREN AFARIKO OSTEGUN SANTUA**..... 39
Martxoaren 26an, **JAUNAREN NEKALDIKO OSTIRAL SANTUA**..... 41
Martxoaren 27an, **JAUNAREN PIZTUERAKO PAZKO GAUBEILA**..... 47
Martxoaren 28an, **JAUNAREN PIZTUERAKO PAZKO IGANDEA**..... 48
Apirilaren 4an, **II. PAZKO IGANDEA**..... 50
Apirilaren 11n, **III. PAZKO IGANDEA**..... 51
Apirilaren 18an, **IV. PAZKO IGANDEA**..... 52
Apirilaren 25ean, **V. PAZKO IGANDEA**..... 53
Maiatzaren 2an, **VI. PAZKO IGANDEA**..... 55
Maiatzaren 9an, **JAUNAREN IGOKUNDEA**..... 56
Maiatzaren 16an, **PENTEKOSTE IGANDEA**..... 57
Maiatzaren 23an, **HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA**..... 58
Maiatzaren 30ean, **KRISTOREN GORPUTZ-ODOL SANTUAK**..... 60
Ekainaren 6an, **URTEAN ZEHARREKO X. IGANDEA**..... 61
Ekainaren 13an, **URTEAN ZEHARREKO XI. IGANDEA**..... 62
Ekainaren 20an, **URTEAN ZEHARREKO XII. IGANDEA**..... 63
Ekainaren 27an, **URTEAN ZEHARREKO XIII. IGANDEA**..... 65
Uztailaren 4an, **URTEAN ZEHARREKO XIV. IGANDEA**..... 66
Uztailaren 11n, **URTEAN ZEHARREKO XV. IGANDEA**..... 67
Uztailaren 18an, **URTEAN ZEHARREKO XVI. IGANDEA**..... 69
Uztailaren 25ean, **SANTIAGO APOSTOLUA**..... 70
Uztailaren 31n, **LOIOLAKO SAN IGNAZIO**..... 71
Abuztuaren 1ean, **URTEAN ZEHARREKO XVIII. IGANDEA**..... 72
Abuztuaren 8an, **URTEAN ZEHARREKO XIX. IGANDEA**..... 74

Abuztuaren 15ean, **MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ZERURATZEA** 75
Abuztuaren 22an, **URTEAN ZEHARREKO XXI. IGANDEA** 76
Abuztuaren 29an, **URTEAN ZEHARREKO XXII. IGANDEA** 77
Irailaren 5ean, **URTEAN ZEHARREKO XXIII. IGANDEA** 78
Irailaren 12an, **URTEAN ZEHARREKO XXIV. IGANDEA** 80
Irailaren 19an, **URTEAN ZEHARREKO XXV. IGANDEA** 81
Irailaren 26an, **URTEAN ZEHARREKO XXVI. IGANDEA** 82
Urriaren 3an, **URTEAN ZEHARREKO XXVII. IGANDEA** 83
Urriaren 10ean, **URTEAN ZEHARREKO XXVIII. IGANDEA** 85
Urriaren 17an, **URTEAN ZEHARREKO XXIX. IGANDEA** 86
Urriaren 24an, **URTEAN ZEHARREKO XXX. IGANDEA** 87
Urriaren 31n, **URTEAN ZEHARREKO XXXI. IGANDEA** 88
Azaroaren 1ean, **SANTU GUZTIEN FESTABURUA** 90
Azaroaren 2an, **HILDAKO FEDEDUNEN OROIPENA** 91
Azaroaren 7an, **URTEAN ZEHARREKO XXXII. IGANDEA** 92
Azaroaren 14an, **URTEAN ZEHARREKO XXXIII. IGANDEA** 93
Azaroaren 21ean, **JESU KRISTO GURE JAUNA, DIREN GUZTIEN ERREGEA** 93

Azaroaren 29an
ABENDUALDIKO I. IGANDEA (B)

Erantzun-salmoa (*Sal* 80 [79], 2acd eta 3bc. 15-16. 18-19)




℣. Entzun, Israelen artzain, ‘
hegodun izakien arteko tronuan zau**den** hori,
ager zakizkigu **dir**daitsu.
Suspertu zeure a**hal**mena
eta zatozkigu sal**ba**tzera. ℟.

℣. Jainko ahalguztiduna, itzu**li**, arren,
begira zerutik, **i**kusi!
Hartzazu zeure mahatsondoaren **ar**dura,
zaindu zeure eskuz landatu **du**zuna. ℟.

℣. Emaiozu eskua zeure aukeratuari,’
zeure indarrez jantzi duzun gizase**me**ari.
Ez gara Zugandik inoiz al**den**duko;
Zuk bizia emango **di**guzu
eta guk dei egingo diogu zure i**ze**nari. ℟.

Aleluia (*Sal* 85 [84], 8)




℣. Erakutsi guri, Jauna, zeure **mai**tasuna,
eman zeure **sal**bamena. ℟.

Abenduaren 6an

ABENDUALDIKO II. IGANDEA (B)

Erantzun-salmoa (*Sal* 85 [84], 9ab eta10. 11-12. 13-14)




℣. Entzungo dut Jainkoak **di**oena:
Jaunak bakea agintzen die bere herriari eta fe**de**dunei.
Hurbil dute salbamena begirune **di**otenek;
bai, gure lurraldean kokatuko da Jau**na**ren aintza. ℟.

℣. Maitasunak eta leialtasunak elkar du**te** aurkitzen,
justiziak eta bakeak elkar be**sar**katzen.
Leialtasuna lurretik **da** ernetzen,
justizia ze**ru**tik jaisten. ℟.

℣. Jaunak emango **du** euria,
eta gure lurrak ekarriko be**re** uzta.
Haren aurretik joango da **jus**tizia,
haren urratsei jarraituko die on**gi**zateak. ℟.

Aleluia (*Lk* 3, 4. 6)




℣. Prestatu bide**a** Jaunari,
zuzendu bi**dex**kak hari;
ikusiko dute giza**ki** guztiek
Jainkoaren **sal**bamena. ℟.

Abenduaren 8an

MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SORTZE GARBIA

Erantzun-salmoa (*Sal* 98 [97], 1. 2-3b. 3c-4)




℣. Kanta Jaunari kantu **be**rria,
egintza harrigarriak egin **bai**titu;
garaipena eman dio bere **es**kuinak,
bere beso **san**tuak. ℟.

℣. Bere garaipena ezagutarazi **du** Jaunak,
bere salbamen-egintza agertu nazioen **au**rrean.
Ez da ahaztu bere mai**ta**sunaz,
Israel herriari dion leial**ta**sunaz. ℟.

℣. Munduko bazter guztiek iku**si** dute
gure Jainkoaren ga**rai**pena.
Egin irrintzi Jaunari, lur **o**soa,
egin poz-oihu eta kantu, jo **soi**nua. ℟.

Aleluia (Ik. *Lk* 1, 28. 42)




℣. Poztu zaitez, Maria, graziaz **be**te hori!
Jau**na** zurekin,
bedeinkatua zu emakume**en** artean. ℟.

Abenduaren 13an

ABENDUALDIKO III. IGANDEA (B)

Erantzun-salmoa (*Lk* 1, 46-48a. 48b-50. 53-54)




℣. Handiesten du nire ari**mak** Jauna,
pozaren pozez daukat neure **ba**rrua,
Jainkoa baita nire sal**ba**mena,
ikusi baitu mirabe honen ezerez**ta**suna. ℟.

℣. Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi **guz**tiek,
handiak egin baitizkit Ahalguz**ti**dunak;
santua da haren **i**zena,
eta haren errukia gizaldiz gizaldi ‘
begirune diote**nen**gana. ℟.

℣. Ondasunez bete ditu gose **zeu**denak
eta esku-hutsik bidali a**be**ratsak.
Lagun etorri zaio bere morroi Is**ra**eli,
bere errukiaz o**roi**turik. ℟.

Aleluia (*Is* 61, 1 [ik. *Lk* 4, 18an aipatua])




℣. Jaunaren Espiritua nire gai**ne**an dago,
behartsuei Berri Ona ematera **bi**dali nau. ℟.

Abenduaren 20an


ABENDUALDIKO IV. IGANDEA (B)

Erantzun-salmoa (*Sal* 89 [88], 2-3. 4-5. 27 eta 29)




℣. Jauna, zure maitasun-egintzak kantatuko ditut beti,
zure leialtasuna iragarriko gizaldiz gizaldi.
Bai, aitortzen dut:
«Betiko eraikia dago zeruan zure maitasuna,
sendo ezarria zure leialtasuna». ℟.

℣. Ituna egin dut neure hautatuarekin,
David neure morroiari zin eginez:
«Sendo ezarriko dut betiko zure errege-jatorria,
menderen mende eraikiko zure errege-aulkia». ℟.



℣. Hark dei egingo dit: «Zu nire aita,
nire Jainkoa, nire harkaitz salbatzailea».
Beti gordeko diot neure maitasuna,
sendo eutsiko harekin dudan itunari. ℟.

Aleluia (*Mt* 1, 23)




℣. Hona hemen Jaunaren mirabea
gerta bekit zuk diozun bezala. ℟.


Abenduaren 25ean

JAUNAREN JAIOTZA

(BEZPERA-ARRATSALDEKO MEZA)

Erantzun-salmoa (*Sal* 89 [88], 4-5. 16-17. 27 eta 29)






℣. Ituna egin dut neure hauta**tu**arekin,
David neure morroiari zin **e**ginez:
«Sendo ezarriko dut betiko zure errege-**ja**torria,
menderen mende eraikiko zure erre**ge**-aulkia». ℟.

℣. Zorionekoa, Zu pozik goresten daki**en** herria!
Zure argitan ibili**ko** da, Jauna;
zure izenean da egune**ro** alaitzen,
zure salbamen-egintzaz **ha**rrotzen. ℟.

℣. Hark dei egingo dit: «Zu **ni**re aita,
nire Jainkoa, nire harkaitz sal**ba**tzailea».
Beti gordeko diot neure **mai**tasuna,
sendo eutsiko harekin dudan **i**tunari. ℟.


Aleluia



℣. Bihar ezereztua izango da lurreko gaizta**ke**ria;
eta munduaren Salbatzailea i**zan**go da
gure e**rre**gea. ℟.

(GAUERDIKO MEZA)

Erantzun-salmoa (*Sal* 96 [95], 1-2a. 2b-3. 11-12a. 12b-13)




℣. Kanta Jaunari kantu **be**rria,
kanta Jaunari, lur **o**soa,
kanta Jaunari, bedeinkatu haren **i**zena! ℟.

℣. Hots egin egunez egun salbatzai**le** dela.
Zabaldu haren ospea nazi**o**etan,
haren mirariak herri guz**ti**etan. ℟.

℣. Poztu bedi zerua, alai**tu** lurra,
egin beza orro itsasoak eta bertako **guz**tiak,
egin festa landa zabalak eta bertan den **guz**tiak. ℟.

℣. Egin poz-oihu, basoko zuhaitz **guz**tiok,
Jaunaren aurrean, bada**tor** eta,
badator lurra epaitzera.
Justiziaz epaituko du **mun**dua
eta leialtasunez **he**rriak. ℟.


Aleluia (*Lk* 2, 10-11)



℣. Poz handia sortuko duen be**rri** ona
iragartzen **di**zuet:
Salbatzailea, Mesias Jauna, jaio **zai**gu gaur! ℟.

(GOIZEKO MEZA)


Erantzun-salmoa (*Sal* 97 [96], 1 eta 6. 11-12)



℣. Errege da Jauna! Alai be**di** lurra,
poztu bitez uharte u**ga**riak!
Zeruek haren salbamen-egintza iragartzen **du**te,
herri guztiek haren ospe**a** ikusten. ℟.

℣. Argia sortzen da zintzo**a**rentzat,
poza bihotz zuzene**ko**entzat.
Poztu zaitezte Jaunarekin, zin**tzo**ok,
goretsazue, haren santutasuna **go**goratuz. ℟.


Aleluia (*Lk* 2, 14)



℣. Aintza zeruetan Jain**ko**ari
eta bakea lurrean haren gogoko gizon-emaku**me**ei. ℟.

(EGUNEKO MEZA)

Erantzun-salmoa (*Sal* 98 [97], 1. 2-3ab. 3c-4. 5-6)




℣. Kanta Jaunari kantu **be**rria,
egintza harrigarriak egin **bai**titu;
garaipena eman dio bere **es**kuinak,
bere beso **san**tuak. ℟.

℣. Bere garaipena ezagutarazi **du** Jaunak,
bere salbamen-egintza agertu nazioen **au**rrean.
Ez da ahaztu bere mai**ta**sunaz,
Israel herriari dion leial**ta**sunaz. ℟.

℣. Munduko bazter guztiek iku**si** dute
gure Jainkoaren ga**rai**pena.
Egin irrintzi Jaunari, lur **o**soa,
egin poz-oihu eta kantu, jo **soi**nua. ℟.

℣.. Ospatu Jauna **zi**taraz,
zitaraz eta kan**tu**-hotsez,
turutaz eta a**dar**-hotsez;
egin irrintzi errege den **Jau**nari. ℟.

Aleluia





℣. Argitu du egun **san**tua;
zatozte, herriok, gurtu ezazu**e** Jauna;
argi handia jaitsi da gaur **lu**rrera. ℟.

Abenduaren 27an

FAMILIA SANTUA: JESUS, MARIA ETA JOSE

Erantzun-salmoa (*Sal* 105 [104], 1-2. 3-4. 5-6. 8-9)






℣. Goretsazue Jauna, dei egin haren **i**zenari,
ezagutarazi herrien artean haren egin**tza** bikainak.
Kanta iezaiozue, jo soinu**a** harentzat,
kontatu haren mira**ri** guztiak. ℟.

℣. Harro zaitezte haren i**zen** santuaz,
poztu, bihotzez Jaunaren bila za**bil**tzatenok.
Jo ezazue indartzen duen **Jau**nagana,
bilatu etengabe haren **aur**pegia. ℟.

℣. Ekarri gogora hark egindako **mi**rariak,
haren egintza harrigarriak eta agin**du** zuzenak,
zuek, Jaunaren morroi Abrahamen ja**to**rrikook,
Jakoben seme-alabok, haren au**ke**ratuok. ℟.

℣. Gogoan du etengabe be**re** ituna,
mila gizalditarako **hi**tzemana;
Abrahamekin egini**ko** ituna,
Isaaki egin**da**ko zina. ℟.

Aleluia (Ik. *Eg* 16, 14b)




℣. Ireki, Jauna, gure **bi**hotza,
gogoz onar ditzagun zure Semea**ren** hitzak. ℟.

Urtarrilaren 1ean

JAINKOAREN AMA MARIA SANTUAREN FESTABURUA

Erantzun-salmoa (*Sal* 67 [66]. 2-3. 5. 6 eta 8)





℣. Erruki bekigu Jainkoa eta bedeinka **gai**tzala,
ager diezagula aurpe**gi** argia,
ezagut dezaten munduan zure **bi**dea,
nazio guztietan Zugandiko sal**ba**mena. ℟.

℣. Poztu bitez kantari na**zi**oak,
zuzentasunez baitituzu goberna**tzen** herriak
eta gidatzen munduan na**zi**oak. ℟.

℣. Ene Jainko, aipa zaitzatela **he**rriek,
aipa zaitzatela he**rri** guztiek.
Bedeinka gaitzala **Jain**koak,
izan diezaiola begirune mundu **o**soak. ℟.

Aleluia (*Heb* 1, 1-2)






℣. Askotan eta era as**ko**tara,
hitz egin zien antzina Jainkoak profeten bidez gure ar**ba**soei;
azkenak diren egun **hau**etan, berriz,
bere Semearen bidez hitz e**gin** digu. ℟.

Urtarrilaren 3an
EGUBERRI ONDORENGO II. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 147, 12-13. 14-15. 19-20)




Jerusalem, ospa eza**zu** Jauna,
Sion, goretsazu zure **Jain**koa.
Zure ateen sarrailak indartu bai**ti**tu,
zure semeak zure barnean bedein**ka**tu ditu. R/.

Zure mugetan bakea eza**rri** baitu,
gari-mamiz a**se** zaitu.
Bidaltzen du lurrera bere min**tzo**a,
eta Haren hitza bizkor eta **a**rin doa. R/.

Iragarri dio bere hitza **Ja**kobi,
bere erabaki eta aginduak Is**ra**eli.
Ez dio egin horrelakorik beste he**rri**ri,
bere aginduak ez dizkio ager**tu** besteri. R/.

Aleluia (*1 Tm* 3, 16)




Aintza Zu**ri**, Kristo,
hots egine izan baitzara a**tze**rriei;
aintza Zu**ri**, Kristo,
sinetsia izan baitzara **mun**duan. R/.

Urtarrilaren 6an


JAUNAREN AGERKUNDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 72 [71], 1-2. 7-8. 10-11. 12-13)



℣. Ene Jainko, emaiozu zeure zuzentasuna erre**ge**ari,
zeure justizia erregearen se**me**ari.
Goberna beza zure herria jus**ti**ziaz,
zure dohakabeak zu**zen**bidez. ℟.


℣. Haren egunetan, lora bedi jus**ti**zia,
ugaldu bakea, ilargia itza**li** arte.
Izan bedi nagusi itsasotik itsa**so**raino,
lurraren bazter batetik bes**te**raino. ℟.



℣. Ekar biezazkiote opariak ‘Tarsisko eta uharteetako e**rre**geek,
ordaindu zergak Sabako eta Sebako e**rre**geek.
Agurtu bezate ahuspezturik errege **guz**tiek,
izan bitza menpeko nazio **guz**tiak. ℟.

℣. Berak libratuko du oihuka ari den be**har**tsua,
nork lagundurik ez duen doha**ka**bea.
Gupida izango die gizagaixo eta be**har**tsuei,
bizia salbatuko **po**breei. ℟.

Aleluia (*Mt* 2, 2)





℣. Haren izarra ikusi dugu sor**tal**dean
eta hura gurtze**ra** gatoz. ℟.

Urtarrilaren 10ean

JAUNAREN BATAIOA

Erantzun-salmoa (*Is* 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6)






℣. Jainkoa dut sal**ba**tzaile!
Badut uste on eta ez naiz **bel**dur,
Jauna baitut indar eta **ke**men,
hura neure **sal**bamen. ℟.

℣. Aterako duzue ura pozik
salbamenaren iturri**e**tatik.
«Eskerrak Jaunari, dei egin haren ize**na**ri,
iragarri haren egintzak he**rri**ei,
aldarrikatu zein bikaina den ha**ren** izena. ℟.

℣. Kanta Jaunari, bikain joka**tu** baitu,
jakin bezate honen berri mundu o**so**an.
Egin poz-irrintzi eta oihu, Siongo bizila**gu**nok,
handikiro ari baita zuen alde Israelgo **San**tua». ℟.

Aleluia (Ik. *Jn* 1, 29)




℣. Ikusi zuen Joan Bataia**tzai**leak
Jesus beregana etortzen eta e**san** zuen:
«Hona hemen Jainkoaren **Bil**dotsa,
hona munduko bekatua kentzen **du**ena». ℟.

Urtarrilaren 17an

URTEAN ZEHARREKO II. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 40 [39], 2 eta 4ab. 7-8a. 8b-10)




℣. Jaunagan nuen jarria itxaropen **guz**tia,
makurtu eta entzun du nire **oi**hua.
Kantu berria ipini dit **ez**painetan,
gorespen-kanta gure Jain**ko**arentzat. ℟.

℣. Zuk ez duzu sakrifiziorik eta eskaintzarik na**hi** izan,
ez erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik **es**katu;
baina belarriak ireki **diz**kidazu.
Horregatik diot: «**He**men nauzu». ℟.

℣. Hau dago nitaz liburuan idatzia: ‘
egin dezadala zu**re** nahia.
Atsegin dut, ene Jainko, ‘
barne-muinetan dut zure **le**gea.
Iragarri dut batzar nagusian zure **jus**tizia,
ez ditut ezpainak itxi, ongi da**ki**zu, Jauna. ℟.

Aleluia (*Jn* 1, 41- 17b)




℣. Mesias aurkitu dugu —hau **da**, Kristo—.
Grazia eta egia, Honen bidez e**to**rri dira. ℟.

Urtarrilaren 24an

URTEAN ZEHARREKO III. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 25 [24], 4-5b. 6 eta 7cd. 8-9)




℣. Azaldu niri, Jauna, zeu**re** bideak,
erakutsi zeu**re** bidexkak.
Gida nazazu zeure leialtasunean, eta **i**rakatsi,
Zu baitzara nire Jainko sal**ba**tzailea. ℟.

℣. Izan gogoan, Jauna, zeure gupida eta **mai**tasuna,
betidaniko**ak** baitira.
Gogoratu nitaz zeure mai**ta**sunean,
zeure ontasunari dagoki**o**nez, Jauna. ℟.

℣. Ona eta zuze**na** da Jauna,
bidea erakusten die be**ka**tariei.
Apalak zuzenbidez **da**ramatza,
bere bidea erakusten die **a**palei. ℟.

Aleluia (*Mt* 1, 15)




℣. Hurbil da Jainkoaren erregetza, di**o** Jaunak:
bihotz-berri zaitezte eta sinetsi **Be**rri Ona. ℟.

Urtarrilaren 31n

URTEAN ZEHARREKO IV. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*95* [94], 1-2. 6-7c. 7d-9)




℣. Zatozte, degiogun poz-oihu **Jau**nari,
poz-irrintzi, salbatzen gaituen har**kai**tzari.
Aurkez gakizkion eskerrak **e**manez,
degiogun jai txaloka eta **kan**tari. R/.

℣. Zatozte, gurtu dezagun ahus**pez**turik,
belaunika gaitezen egin gaituen Jaunaren **au**rrean.
Bera baita gure Jainkoa, ‘
eta gu hark larraturiko **he**rria,
haren zainpeko ar**tal**dea. R/.

℣. Entzungo ahal duzue gaur haren **a**hotsa:
«Ez gogortu bihotza Meriban **be**zala,
Masako egunean basamortuan bezala, ‘
tentatu egin baininduten zuen gu**ra**soek,
probatu, Nik eginak iku**si** arren». R/.

Aleluia (*Mt* 4, 16)





℣. Ilunpean bizi zen herriak argi handia ikusi **zu**en,
herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien **ar**giak. R/.

Otsailaren 7an

URTEAN ZEHARREKO V. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 147 [146], 1-2. 3-4. 5-6)






℣. Bai eder gure Jainkoa kantuz os**pa**tzea,
bai gozo hura doinu eztiz go**res**tea!
Jaunak du Jerusalem be**rre**raikitzen,
Israelgo erbestera**tu**ak biltzen. ℟.

℣. Bihotz-hautsiak ditu **sen**datzen
eta haien zauri**ak** lotzen.
Izarren kopurua **fin**katzen du
eta bakoitzari bere ize**na** ematen. ℟.

℣. Handia da gure Jauna, guztiz in**dar**tsua,
haren jakinduria neurririk **ga**bea.
Jaunak zutik eusten die **u**milei,
lurreraino eraisten di**tu** gaiztoak. ℟.

Aleluia (*Mt* 8, 17)





℣. Kristok bere gain hartu zituen gure ahuleriak
eta gure gaitzak eraman. ℟.

Otsailaren 10ean

HAUSTERRE EGUNA

Erantzun-salmoa (*Sal* 51 [50], 3-4. 5-6ab. 12-13. 14 eta 17)






℣. Erruki nitaz, ene Jainko, zeure mai**ta**sunaz,
suntsitu nire hobena zeure neurrigabe**ko** gupidaz.
Garbi nazazu zeharo neu**re** errutik,
garbitu neure **be**katutik. ℟.

℣. Aitortzen dut, bai, neu**re** hobena,
begi aurrean dut etengabe neure **be**katua.
Zure aurka, zure aurka bakarrik, egin dut bekatu,
zure begietan oker de**na** egin dut.
neure hobena beti begien au**rre**an baitut. ℟.

℣. Ene Jainko, sortu bihotz gar**bi**a nigan,
berritu arnasa sendoa ni**re** barnean.
Ez nazazu bota zeu**re** aurretik,
ez kendu niri zeure arna**sa** santua. ℟.

℣. Poztu nazazu berriro zeure **sal**bamenaz,
sendo nazazu zeure arnasa **o**paroaz.
Ireki, Jauna, ni**re** ezpainak,
eta nire ahoak iragarriko du zure **go**respena. ℟.


Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. *Sal* 95 [94], 8a. 7d)



℣. Gaur, ez gogortu zuen **bi**hotza,
entzun Jaunaren **a**hotsa. ℟.

Otsailaren 14an
GARIZUMAKO I. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 25 [24], 4-5. 6 eta 7cd. 8-9)





℣. Azaldu niri, Jauna, zeure bide**ak**,
erakutsi zeure **bi**dexkak.
Gida nazazu zeure leialtasunean, eta i**ra**katsi,
Zu baitzara nire Jainko salba**tzai**lea. ℟.

℣. Izan gogoan, Jauna, zeure gupida eta maitasu**na**,
betidanikoak **bai**tira.
Gogoratu nitaz zeure maita**su**nean,
zeure ontasunari dagokio**nez**, Jauna. ℟.

℣. On eta zuzen da Jau**na**,
bidea erakusten die beka**ta**riei.
Apalak zuzenbidez da**ra**matza,
bere bidea erakusten die **a**palei. ℟.

Ebanjelio-aurreko gorapena (*Mt* 4, 4b)






℣. Gizakia ez da ogiz baka**rrik** bizi,
Jainkoaren ahotik ateratzen den hitz guzti**tik** baizik. ℟.

Otsailaren 21ean


GARIZUMAKO II. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 116 [115], 10 eta 15. 16-17. 18-19)




℣. Sendo nengoen **fe**dean,
«Ni bai zoritxarreko» esate**an** ere.
Mingarri zaio Jaunari
bere fededunen heriotza. ℟.


℣. Bai, zure zerbitzari naiz, Jauna,
zure zerbitzari e**ze**reza,
askatu dituzu nire **ka**teak.
Gorespen-oparia dizut es**kai**niko
eta Jaunaren izenari dei **e**gingo. ℟.



℣. Beteko dizkiot Jaunari **pro**mesak,
herri guztiaren **au**rrean,
Jaunaren etxeko a**ta**rian,
Jerusalem, zure **er**dian. ℟.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. *Lk* 9, 35)






℣. Hodei distiratsutik Aitaren ahotsa **en**tzun zen:
Hauxe da nire Seme maitea. Entzu**io**zue. ℟.

Otsailaren 28an

GARIZUMAKO III. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 19 [18], 8-9. 10-11)




℣. Jaunaren legea bikain, barrena arnasbe**rri**tzen du;
Jaunaren manamendua fidagarri, heldugabea zuhur e**gi**ten du.

Jaunaren arauak zuzen, bihotzaren **poz**garri,
Jaunaren aginduak distiratsu, begien ar**gi**garri. ℟.

℣. Jaunaren begirunea garbi, iraunkor **be**tiko,
Jaunaren erabakiak egiazko, den-denak **bi**dezko.
Urrea baino, urre araztua baino desiraga**rri**ago,
eztia, ezti berria baino go**zo**ago. ℟.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. *Jn* 3, 16)





℣. Hain maite izan zuen Jainkoak **mun**dua,
bere Seme bakarra e**man** baitzion;
harengan sinesten duenak betiko bi**zi**a du. ℟.

Martxoaren 7an

GARIZUMAKO IV. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 137 [136] 1-2. 3. 4-5. 6)






℣. Babiloniako ibaiertzean eseriak geunden **ne**garrez,
Sionen o**roi**penez.
Ur ondoko sa**ha**tsetan
utziak genituen zitarak **zin**tzilik. ℟.

℣. Han, erbesteratu gintuztenak kantu eske ge**ni**tuen,
gure zapaltzaileak kanta alai**en** eske:
«Kanta guretzat Sion**go** kantak». ℟.

℣. Nola kantatu Jaunaren **kan**tarik
atzerriko lur**ral**dean?
Jerusalem, zutaz ahaztu **ba**nendi,
geldi bekit eskua **el**barri. ℟.

℣. Itsatsi bekit mingaina aho**sa**baian,
zutaz oroitzen **ez** banaiz,
niretzat pozbiderik bi**kai**nena
Jerusalem **ez** bada. ℟.

Ebanjelio-aurreko gorapena (*Jn* 3, 16)




℣. Hain maite izan zuen Jainkoak **mun**dua,
bere Seme bakarra e**man** baitzion;
harengan sinesten duenak betiko bi**zi**a du. ℟/.

Martxoaren 14an

GARIZUMAKO V. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 51 [50], 3-4. 12-13. 14-15)




℣. Erruki zakizkit, ene Jainko, zeure **mai**tasunaz,
suntsitu nire hobena zeure neurrigabeko **gu**pidaz.
Garbi nazazu zeharo neu**re** errutik,
garbitu neure **be**katutik. ℟.

℣. Ene Jainko, sortu bihotz gar**bi**a nigan,
berritu arnasa sendoa nire **bar**nean.
Ez nazazu bota zeu**re** aurretik,
ez kendu niri zeure arna**sa** santua. ℟.

℣. Poztu nazazu berriro zeure **sal**bamenaz,
sendo nazazu zeure arnasa o**pa**roaz.
Erakutsiko dizkiet gaiztoei zu**re** bideak,
eta Zugana bihurtuko dira be**ka**tariak. ℟.

Ebanjelio-aurreko gorapena (*Jn* 12, 26)




℣. Nire zerbitzari izan nahi **du**enak,
jarrai biezat, **di**o Jaunak,
eta Ni nagoen **to**kian,
han izango da nire zerbitzari**a** ere. ℟.

Martxoaren 21ean

JAUNAREN NEKALDIKO ERRAMU IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 22 [21] 8-9. 17-18a. 19-20. 23-24)




℣. Ikusten nautenek burla egiten **di**date,
ezpainak okertuz, buruari e**ra**ginez:
«Jaunagana jo du, libra **de**zala!
Salba dezala, hainbeste mai**te** badu». ℟.

℣. Zakur-taldeak nau in**gu**ratzen,
gaizkile-multzoak erdi**an** hartzen.
Esku-oinak zulatu diz**ki**date,
hezur guztiak zenbatu **di**tzaket. ℟.

℣. Nire jantziak banatzen **d**ituzte,
nire soinekoa zotz **e**giten.
Baina Zu, Jauna, ez e**gon** urrun!
Ene indar, zatoz laster ni la**gun**tzera. ℟.

℣. Iragarriko diet zure izena neure senideei,
goretsiko zaitut batzarraren **er**dian.
Goretsazue Jauna, begirune dio**zu**enok;
ospa ezazue, Jakoben ondorengo **guz**tiok,
izan haren beldur, Israelen seme-**a**labok. ℟.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. *Flp* 2, 8-9)




℣. Kristo gugatik menpeko egin zen herio**tza**raino,
gurutzeko heri**o**tzaraino.
Horregatik Jainkoak goratu e**gin** zuen,
eta izen guztien gaineko izena e**man** zion. ℟.

Martxoaren 25ean

JAUNAREN AFARIKO OSTEGUN SANTUA

Erantzun-salmoa (*Sal* 116 [115], 12-13. 15 eta 16bc. 17-18




℣. Nola ordainduko diot **Jau**nari
egin didan on **guz**tia?
Salbamen-edontzia dut al**txa**tuko
eta Jaunaren izenari dei **e**gingo. ℟.

℣. Mingarri zaio **Jau**nari
bere fededunen he**ri**otza.
Zure zerbitzari ezereza **naiz**, Jauna,
askatu dituzu nire **ka**teak. ℟.

℣. Gorespen-oparia dizut es**kai**niko
eta Jaunaren izenari dei **e**gingo.
Beteko dizkiot Jaunari **pro**mesak,
herri guztiaren **au**rrean. ℟.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. *Jn* 13, 34)




℣. Agindu berria ematen dizuet, dio Jaunak:
maita dezazuela elkar,
Nik maite izan zaituztedan bezala. ℟.


Martxoaren 26an

JAUNAREN NEKALDIKO OSTIRAL SANTUA

Erantzun-salmoa (*Sal* 31 [30], 2 eta 6. 12-13. 15-16. 17 eta 25)



℣. Zugan babesten naiz, Jauna, ‘
ez nadila behin ere lotsaga**rri** gerta;
atera nazazu onik, zuzena **bai**tzara.
Zure eskuetan uzten dut neure **bi**zia;
aska nazazu, Jauna, Jainko **le**iala. ℟.




℣. Iseka-bide bihurtu naiz etsaientzat, ‘
are gehiago auzo**ko**entzat;
izua sortzen diet ezagunei; ‘
ni kalean ikusi eta alde egiten **di**date.
Ahaztua naute erabat, hildakoa **be**zala,
baztertua, alferreko tresna **be**zala. ℟.

℣. Baina nik, Jauna, Zugan dut kon**fi**antza;
hau diot: «Zu ni**re** Jainko».
Zure eskuan dut neure **zo**ria,
libra nazazu etsai eta pertsegitzaileen **es**kutik. ℟.

℣. Erakutsi aurpegi argia zerbitza**ri** honi,
salba nazazu zeure mai**ta**sunaz.
Eutsi gogor, i**zan** bihotz,
Jaunagan itxaroten duzuen **guz**tiok! ℟.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. *Flp* 2, 8-9)




℣. Kristo gugatik menpeko egin zen heriotzaraino, ‘
gurutzeko herio**tza**raino.
Horregatik Jainkoak goratu **e**gin zuen,
eta izen guztien gaineko izena e**man** zion. ℟.

Martxoaren 27an, gauean

JAUNAREN PIZTUERAKO PAZKO GAUBEILA

Erantzun-salmoa (*Sal* 104 [103], 1-2a. 5-6. 10 eta 12. 13-14ab. 24 eta 35c)




℣. Bedeinka beza nire ari**mak** Jauna!
Jauna, ene Jainkoa, bai handia za**re**la!
Distiraz eta handitasunez zaude **jan**tzia,
argiz inguratua, soinekoz **be**zala. ℟.

℣. Sendo ezarri zenu**en** lurra
eta ez da sekula koloka e**gon**go.
Ozeanoz estali zenuen soinekoz **be**zala,
eta urek azpian hartu zituzten **men**diak. ℟.


℣. Ibaiak sorrarazten dituzu iturri**e**tatik,
eta mendi artean doaz isu**ri**an.
Ur-bazterretan bizi dira zeruko he**gaz**tiak,
hosto artean **kan**tari. ℟.

℣. Zeure goi-geletatik dituzu mendiak u**rez**tatzen,
zeure biltegietako emaitzez lurra a**se**tzen.
Abereentzat ernearazten duzu **be**larra,
lanerako animalien**tzat** bazka. ℟.



℣. Bai ugariak, Jauna, Zuk **e**ginak!
Denak jakinduriaz egin di**tu**zu,
zure sorkariz betea da**go** lurra.
Bedeinka beza nire ari**mak** Jauna! ℟.

Erantzun-salmoa (*Sal* 15, 5 eta 8. 9-10. 11)




℣. Jauna, Zu zaitut neure ondarea, neure e**don**tzia,
zure esku dago nire zo**ri**a.
Begi aurrean dut Jauna e**ten**gabe;
hura eskuinean dudala, ez naiteke **dar**dara. ℟.

℣. Horregatik, alai dut bihotza, pozik **e**rraiak,
atsedenean lasai gor**pu**tza.
Ez baituzu nire bizia Herio-leizera e**go**tziko,
ezta ere zeure fededuna hilobian galtzen **u**tziko. ℟.

℣. Bizirako bidea erakutsiko **di**dazu;
alaitasunez beteko nauzu zeure au**rre**an,
zorionez betiko zeure **on**doan. ℟.

Erantzun-salmoa (*Ir* 15, 1-2. 3-4. 5-6. 17-185, 5 eta 8. 9-10. 11)




℣. Jaunari diot kantatzen, ‘
garaipen handia lortu du**e**lako,
zaldi eta zaldun itsasora amildu dituelako. ‘
Jauna dut indar eta kemen, hura neure **sal**bamen.
Hura dut neure Jainkoa: gores**pen** hari,
neure aitaren Jainkoa: goraipatua i**zan** bedi. ℟.


℣. Gudari da Jauna, ‘
Jauna du hark **i**zena.
Itsasoan hondoratu ditu ‘
Faraoiaren gurdiak eta gu**da**riak,
Itsaso Gorrian **a**mildu
haren buruzagirik auke**ra**koenak. ℟.

℣. Ur handiek estali **zi**tuzten,
harria bezala hondora jo**an** ziren.
Zure eskuina, Jauna, biziki in**dar**tsua,
zure eskuinak, Jauna, xehatzen du **e**tsaia. ℟.

℣. Sarrarazi duzu zeure herria ‘
eta zeure mendian landatu, zeure on**da**rean,
zeure egoitza egin duzun toki**an**, Jauna,
zeure eskuz, Jauna, eraiki duzun santu**te**gian.
Jauna errege da betidanik be**ti**daino. ℟.

Erantzun-salmoa (*Sal* 29, 2 eta 4. 5-6. 11-12a eta 13b)






℣. Goratzen zaitut, Jauna, onik atera nau**zu**lako,
etsaiei nire lepotik pozten utzi ez die**zu**lako.
Jauna, Herio-leizetik a**te**ra nauzu,
zulora jaistear nengoela bi**zi**berritu. ℟.

℣. Kanta Jaunari, haren fededunok, ‘
goretsazue, haren santutasuna go**go**ratuz.
Une baterako da haren haserrea, ‘
bizi guztirako haren on**gi**nahia.
Arratsean negarra **da** gurean,
poz-oihu**a** goizean. ℟.

℣. Entzun, Jauna, eta erru**ki** nitaz,
izan zakizkit laguntzaile, Jauna.
Negarra dantza bihur**tu** didazu,
Jauna, ene Jainkoa, eskerrak emango diz**ki**zut beti. ℟.

Erantzun-salmoa (*Is* 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6)




℣. Jainkoa dut sal**ba**tzaile!
Badut uste on eta ez **naiz** beldur,
Jauna baitut indar e**ta** kemen,
hura neure **sal**bamen. ℟.

℣. Aterako duzue ura pozik
salbamenaren iturri**e**tatik.
«Eskerrak Jaunari, egin dei haren i**ze**nari,
iragarri haren egintzak **he**rriei,
aldarrikatu zein bikaina den haren **i**zena. ℟.

℣. Kanta Jaunari, bikain joka**tu** baitu,
jakin bezate honen berri mundu **o**soan.
Egin poz-irrintzi eta oihu, Siongo bizi**la**gunok,
handikiro ari baita zuen alde Israelgo **San**tua». ℟.


Erantzun-salmoa (*Sal* 19 [18], 8-9. 10-11)



℣. Jaunaren legea bikain, barrena arnasbe**rri**tzen du;
Jaunaren manamendua fidagarri, heldugabea zuhur e**gi**ten du.
Jaunaren arauak zuzen, bihotzaren **poz**garri;
Jaunaren agindua distiratsu, begien ar**g**igarri. ℟.

℣. Jaunaganako begirunea garbi, iraunkor **be**tiko,
Jaunaren erabakiak egiazko, den-denak **bi**dezko.
Urrea, urre araztua baino desiraga**rri**ago,
eztia, ezti berria baino go**zo**ago. ℟.


Erantzun-salmoa (*Sal* 50, 12-13. 14-15. 18-19)



℣. Jainkoaren egarri naiz, Jainko bizia**ren** egarri:
noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia i**kus**tera?
Gogoan dut, nola joaten nintzen tenplura, Jainkoa**ren** etxera,
poz-oihuz eta goraka, jai-giroan, jendetzare**kin** batera. ℟.

℣. Bidal zeure argia eta egia, gida nazatela,
eta eraman zure mendi santura, zure bi**zi**lekura.
Eta iritsiko naiz Jainkoaren al**da**rera,
neure poz betea dudan Jain**ko**agana.
Zitaraz goretsiko zaitut, Jainkoa, e**ne** Jainkoa. ℟.

Aleluia (*Sal* 117, 1-2. 16bc-17. 22-23)



℣. Eskerrak Jaunari, o**na** baita,
haren maitasuna betiko**a** baita.
Esan bezate isra**el**darrek:
haren maitasuna be**ti**koa. ℟.


℣. «Jaunaren eskuinak indarrez jo**ka**tu du,
Jaunaren eskuina guztiz ga**ra**ia da».
Ez naiz hilko, ez, bi**zi** baizik,
Jaunaren egintzak kon**ta**tzeko. ℟.

℣. Etxegileek baztertutako **ha**rria
giltzarri ger**ta**tu da.
Jaunak egin **du** hori,
gure begien ha**rri**garri. ℟.


Martxoaren 28an

JAUNAREN PIZTUERAKO PAZKO IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 118 [117], 1-2. 15c-16a eta 17. 22-23)




℣. Eskerrak Jaunari, o**na** baita,
haren maitasuna betiko**a** baita.
Esan bezate isra**el**darrek:
haren maitasuna be**ti**koa. ℟.




℣. «Jaunaren eskuinak indarrez jo**ka**tu du,
Jaunaren eskuina guztiz ga**ra**ia da».
Ez naiz hilko, ez, bi**zi** baizik,
Jaunaren egintzak kon**ta**tzeko. ℟.

℣. Etxegileek baztertutako **ha**rria
giltzarri ger**ta**tu da.
Jaunak egin **du** hori,
gure begien ha**rri**garri. ℟.

Aleluia (1 *Ko* 5, 7b-8a)







℣. Kristo gure Pazko **Bil**dotsa
opari eskainia **i**zan da;
ospa dezagun Paz**ko**-jaia. ℟.

Apirilaren 4an

II. PAZKO IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 118 [117], 2-4. 15c-16a 17-18. 22-24)






℣. Esan bezate israeldarrek: haren maitasuna be**ti**koa.
Esan bezate aarondar apaizek: haren maitasuna be**ti**koa.
Esan bezate Jaunari begirune di**o**tenek:
haren maitasuna be**ti**koa. ℟.

℣. «Jaunaren eskuinak indarrez jokatu du, ‘
Jaunaren eskuina guztiz ga**rai**a da».
Ez naiz hilko, ez, bizi baizik, ‘
Jaunaren egintzak kon**ta**tzeko.
Gogor zigortu **nau** Jaunak,
baina ez nau heriotzara **e**raman. ℟.

℣. Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da. ‘
Jaunak egin du hori, gure begien ha**rri**garri.
Hau da Jaunaren egintza-**e**guna,
poztu gaitezen eta alaitu **ha**rengan. ℟.

Aleluia (*Jn* 20, 29)




℣. Ikusi nauzulako sinetsi al duzu, Tomas? –dio Jaunak–:
zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak. ℟.

Apirilaren 11n

III. PAZKO IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 4, 2. 7. 9)




℣. Deitzen dizudanean, erantzun, Jainko, ene defen**da**tzaile.
Estualdian emadazu la**sai**tasun.
Erruki zakizkit eta entzun nire **o**toitza. ℟.


℣. Jakizue maitasun harrigarria agertzen dida**la** Jaunak,
entzun egiten didala deitzen dio**da**nean. ℟.

℣. Asko ari dira esaten: «Nork emango guri zo**ri**ona?»
Aldendu egin duzu gugan**dik**, Jauna,
zeure aurpegi ar**gi**tsua! ℟.

℣. Bakean oheratzen naiz eta berehala **lo**kartzen,
Zuk bakarrik bainauzu, Jauna, lasai bizi**a**razten. ℟.

Aleluia (Ik. *Lk* 24, 32)






℣. Jesus Jauna, ager guri Liburu Santuak;
sutu gure bihotzak hitz egiten diguzunean. ℟.

Apirilaren 18an

IV. PAZKO IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 118 [117], 1 eta 8-9. 21-23. 26 eta 28-29)




℣. Eskerrak Jaunari, ona baita, ‘ haren maitasuna betiko**a** baita.
Hobe da Jaunagan babestea ‘ gizakiaz fidatze**a** baino;
hobe Jaunagan ba**bes**tea
handikiez fidatze**a** baino. ℟.

℣. Eskerrak Zuri erantzun didazulako, ‘
nire salbatzaile izan za**re**lako.
Etxegileek baztertutako harria ‘ giltzarri ger**ta**tu da.
Jaunak egin **du** hori,
gure begien ha**rri**garri. ℟.

℣. Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena! ‘
Jaunaren etxetik bedeinkatzen zai**tuz**tegu.
Zu zara nire Jainko, eskerrak Zuri! ‘
Gora Zu, ene Jain**ko** hori!
Eskerrak Jaunari, o**na** baita,
haren maitasuna betiko**a** baita. ℟.

Aleluia (*Jn* 19, 14)




℣. Ni naiz artzain ona, di**o** Jaunak;
ezagutzen ditut neure **ar**diak,
eta neureek ezagutzen **nau**te Ni. ℟.

Apirilaren 25ean

V. PAZKO IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 22 [21], 26b-27. 28. 30abcd. 30e-32)




℣. Beteko ditut neure promesak begirune diotenen **au**rrean.
Asetzeraino jango dute be**har**tsuek,
goretsiko dute Jauna beraren bila da**bil**tzanek.
Bizi bedi zuen bihotza **be**tiko! ℟.

℣. Oroituko dira eta Jaunagana i**tzu**liko
lurreko herri **guz**tiak,
haren aurrean ahuspeztu**ko** dira
herrietako familia **guz**tiak. ℟.

℣. Haren aurrean ahuspeztu**ko** dira
lurpean lo dauden **guz**tiak,
haren aurrean ma**kur**tuko
hilobiko hautsera **jai**tsiak. ℟.

℣. Ni, ordea, harentzat biziko naiz,
nire ondorengoek Jauna zerbitzatu**ko** dute,
hartaz hitz egingo diete datozen gi**zal**diei,
haren salbamen-egintza iragarriko **di**ote
sortzeko dagoen herriari: «Horrela jokatu **du** Jaunak». ℟.

Aleluia (*Jn* 15, 4a. 5b)





℣. Zaudete Nigan, Ni zuengan bezala, di**o** Jaunak;
norbait Nigan badago, horrek fruitu asko e**man**go du. ℟.

Maiatzaren 2an

VI. PAZKO IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 98 [97], 1. 2-3ab. 3cd-4)






℣. Kanta Jaunari kantu **be**rria,
egintza harrigarriak egin **bai**titu;
garaipena eman dio bere **es**kuinak,
bere beso **san**tuak. ℟.

℣. Bere garaipena ezagutarazi **du** Jaunak,
bere salbamen-egintza agertu nazioen **au**rrean.
Ez da ahaztu bere mai**ta**sunaz,
Israel herriari dion leial**ta**sunaz. ℟.

℣. Munduko bazter guztiek iku**si** dute
gure Jainkoaren ga**rai**pena.
Egin irrintzi Jaunari, lur **o**soa,
egin poz-oihu eta kantu, jo **soi**nua. ℟.

Aleluia (*Jn* 14, 23)




℣. Ni maite nauenak gordeko du nire hitza, di**o** Jaunak;
nire Aitak maite i**zan**go du,
eta Aita e**ta** biok
harengana etorri**ko** gara. ℟.

Maiatzaren 9an

JAUNAREN IGOKUNDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 47 [46], 2-3. 6-7. 8-9)





℣. Herri guztiok, jo ezazu**e** txalo,
egin pozez oihu eta irrintzi Jain**ko**ari,
izugarria baita Jauna, Goi-**goi**koa,
mundu osoaren errege **han**dia. ℟.

℣. Irrintzi artean igo da **Jain**koa,
turuta-soi**nuz** Jauna.
Kanta Jainkoa**ri**, kanta,
kanta gure erregea**ri**, kanta. ℟.

℣. Jainkoa da mundu osoaren **e**rrege,
kanta trebe**ki** hari.
Jainkoa nazioen e**rre**ge da,
Jainkoa bere tronu santuan dago e**se**ria. ℟.

Aleluia (*Mt* 28, 19a-20b)






℣. Zoazte eta egin herri guztiak nire **i**kasle,
di**o** Jaunak,
eta Ni zeuekin izango nauzue e**gu**nero
munduaren azke**na** arte. ℟.

Maiatzaren 16an

PENTEKOSTE IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 104 [103], 1ab eta 24ac. 29b-30. 31 eta 34)




℣. Bedeinka beza nire ari**mak** Jauna!
Jauna, ene Jainkoa, bai handia za**re**la!
Bai ugariak, Jauna, Zuk **e**ginak!
Zure sorkariz betea da**go** lurra. ℟.

℣. Zuk arnasa kendu, eta hil egi**ten** dira,
hauts izatera i**tzul**tzen.
Zuk arnasa bidali, eta berriro sor**tzen** dira,
berritu egiten duzu **lur**bira. ℟.

℣. Izan bedi betiko Jaunaren **os**pea!
Poztu bedi Jauna bere egi**ne**tan!
Atsegin bekio ni**re** kanta,
Jaunagan izango dut neu**re** poza. ℟.


Aleluia



℣. Zatoz, Espiri**tu** Santu,
bete ezazu zeure fededunen **bi**hotza,
eta piztu haiengan zeure mai**te**-sua! R

Maiatzaren 23an
HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA

Erantzun-salmoa (*Sal* 33 [32], 4-5. 6 eta 9. 18-19. 20 eta 22)




℣. Zuzena da Jauna**ren** hitza,
fidagarria hark egin duen **guz**tia.
Justizia eta zuzenbide**a** du maite,
Jaunaren maitasunaz dago lu**rra** betea. ℟.

℣. Jaunak bere hitzaz egin du **or**tzia,
bere aho-arnasaz astro **guz**tiak.
Izan ere, hark esan, eta de**na** egin zen;
hark agindu, eta izaten **du** jarraitzen. ℟.

℣. Jauna arduratzen da begirune di**o**tenez,
haren maitasunean itxaroten **du**tenez,
haiek heriotzatik **li**bratzeko
eta gosetean bizirik **gor**detzeko. ℟.

℣. Guk Jaunagan dugu es**pe**rantza,
bera dugu laguntzaile eta **ba**besle.
Betor gurekin, Jauna, zure **mai**tasuna,
Zugan baitugu jarria i**txa**ropena. ℟.


Aleluia (Ik. *Ap* 1, 8b)




℣. Aintza Aitari, eta Se**me**ari,
eta Espiritu San**tu**ari,
baden, eta bazen, eta etortzekoa den **Jain**koari! ℟.

Maiatzaren 30ean
KRISTOREN GORPUTZ-ODOL SANTUAK

Erantzun-salmoa (*Sal* 116 [115], 12-13. 15-16bc. 17-18)






℣. Nola ordainduko diot **Jau**nari
egin didan on **guz**tia?
Salbamen-edontzia dut **al**txatuko
eta Jaunaren izenari dei **e**gingo. ℟.

℣. Mingarri zaio **Jau**nari
bere fededunen he**ri**otza.
Zure zerbitzari ezere**za** naiz, Jauna,
askatu dituzu nire **ka**teak. ℟.

℣. Gorespen-oparia dizut es**kai**niko
eta Jaunaren izenari dei **e**gingo.
Beteko dizkiot Jauna**ri** promesak,
herri guztiaren **au**rrean. ℟.

Aleluia (*Jn* 6, 51-52a)




℣. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia, di**o** Jaunak;
ogi honetatik jaten duena betiko **bi**ziko da. ℟.

Ekainaren 6an

URTEAN ZEHARREKO X. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 130 [129], 1-2. 3-4. 5-6b. 6c-8)




℣. Barren-barrendik dei egiten di**zut**, Jauna;
entzun, Jauna, nire **min**tzoa!
Beude erne zure be**la**rriak
nire erregu-**oi**hura. ℟.

℣. Erruak kontuan baditu**zu**, Jauna,
nork iraun zutik, e**ne** Jauna?
Baina Zuri barkamena da**go**kizu,
Zuganako begirunean bizi **gai**tezen. ℟.

℣. Jaunaren zain nago, zain dago nire **ba**rrena,
haren hitza dut **i**txaro;
nire barrena Jaunaren irri**kaz** dago,
gauzaina egunsentiaren irrikaz baino **ge**hiago. ℟.

℣. Gauzainak egunsentia bezala, ‘
itxaron beza Israelek **Jau**nagan,
Jaunarena baita maitasuna, ‘
harena askapen **be**tea.
Hark askatuko du **Is**rael
bere erru guzti**e**tatik. ℟.

Aleluia (*Jn* 12, 31b-32)




Orain, mundu honetako **na**gusia
kanpora haizatuko dute —**di**o Jaunak—;
eta Nik, lurretik gora jasoko **nau**tenean,
Neuregana bilduko di**tut** guztiak. R/.

Ekainaren 13an

URTEAN ZEHARREKO XI. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 92 [91], 2-3. 13-14. 15-16)




℣. Bai ederra, Jauna, Zu go**res**tea
eta zure izena, Goi-goiko, kantuz os**pa**tzea,
goizean zure maitasuna ira**gar**tzea
eta gauean zure leial**ta**suna! ℟.

℣. Zintzoa palmondoa bezala gara**tu**ko da,
Libanoko zedroa bezala **ha**ziko;
Jaunaren etxean lan**da**tua,
gure Jainkoaren atarietan gara**tu**ko da. ℟.

℣. Zaharturik ere emango du **frui**tua,
mardul eta heze i**raun**go du,
Jauna zuzena dela ira**gar**tzeko,
nire harkaitza, gaiztakeriarik ez **du**ena. ℟.

Aleluia




℣. Hazia, Jainkoaren hitza da; ereilea, be**rriz**, Kristo;
honi aditzen dionak betiko bizia **i**zango du. ℟.

Ekainaren 20an

URTEAN ZEHARREKO XII. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 107 [106], 23-24. 25-26. 28-29. 30-31)




℣. Itsasora jo zuten **on**tzietan
salerosketan jarduteko ur **han**dietan,
eta Jaunak eginak iku**si** zituzten,
haren egintza harrigarriak itsaso **za**balean. ℟.

℣. Haren esanera ekaitz-haize**a** jaiki zen,
olatu handi**ak** harrotuz.
Zeruan gora, leizean behera **i**bili ziren,
barrua zora**bi**oz larri. ℟.

℣. Baina larrialdian Jaunari deiadar e**gin** zioten,
eta libratu zituen es**tu**alditik.
Ekaitza barealdi bi**hur**tu zuen
eta olatuen orroa isil**du** egin zen. ℟.

℣. Poztu ziren ba**re**aldiaz,
eta beren gogoko portura eraman zi**tu**en Jaunak.
Gorets bezate Jauna agertu duen maita**su**nagatik,
gizakien alde egiten dituen gauza harriga**rri**engatik! ℟.

Aleluia (*Lk* 7, 16)





℣. Profeta handia sortu da gure **ar**tean,
eta Jainkoa bere herria salbatzera e**to**rri da. ℟.

Ekainaren 27an

URTEAN ZEHARREKO XIII. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 30 [29], 2 eta 4. 5-6. 11-12a eta 13b)






℣. Goratzen zaitut, Jauna, onik atera nau**zu**lako,
etsaiei nire lepotik pozten utzi ez die**zu**lako.
Jauna, Herio-leizetik ate**ra** nauzu,
zulora jaistear nengoela bizi**be**rritu. ℟.

℣. Kanta Jaunari, haren fededunok,
goretsazue, haren santutasuna go**go**ratuz.
Une baterako da haren ha**se**rrea,
bizi guztirako haren on**gi**nahia.
Arratsean negarra da gurean, poz-oihua **goi**zean. ℟.

℣. «Entzun, Jauna, eta erru**ki** nitaz,
izan zakizkit laguntzai**le**, Jauna».
Negarra dantza bihurtu **di**dazu,
Jauna, ene Jainkoa, eskerrak emango dizki**zut** beti. ℟.

Aleluia (*2 Tm* 1, 10)




℣. Kristo Jesus gure salbatzaileak heriotza eze**rez**tu du
eta bizia argitu Berri Ona**ren** bidez. ℟.

Uztailaren 4an

URTEAN ZEHARREKO XIV. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 123 [122], 1. 2. 3-4)





℣. Zugana jasotzen ditut **be**giak,
zeruan errege zaren horren**ga**na. ℟.

℣. Nola morroien begiak nagusien esku**e**tara
eta neskamearen begiak etxekoandrearen esku**e**tara,
hala daude gure begiak Jau**na**gana,
gure Jainkoagana, gutaz erruki dadin **ar**te. ℟.

℣. Erruki gutaz, Jauna, **e**rruki!
Buruz gain gaude **mes**pretxuz,
buruz gain ustetsu**en** burlaz,
harroen ira**i**nez. ℟.

Aleluia (Ik. *Lk* 4, 18)






℣. Behartsuei Berri Ona ematera bida**li** nau Jaunak,
gatibuei askatasuna hots e**gi**tera. ℟.

Uztailaren 11n

URTEAN ZEHARREKO XV. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 85 [84], 9ab-10. 11-12. 13-14)




℣. Entzungo dut Jainkoak **di**oena:
Jaunak bakea agintzen die bere herriari eta fe**de**dunei.
Hurbil dute salbamena begirune **di**otenek;
bai, gure lurraldean kokatuko da Jau**na**ren aintza. ℟.

℣. Maitasunak eta leialtasunak elkar du**te** aurkitzen,
justiziak eta bakeak elkar be**sar**katzen.
Leialtasuna lurretik **da** ernetzen,
justizia ze**ru**tik jaisten. ℟.

℣. Jaunak emango **du** euria,
eta gure lurrak ekarriko be**re** uzta.
Haren aurretik joango da **jus**tizia,
haren urratsei jarraituko die on**gi**zateak. ℟.

Aleluia (Ik. *Ef* 1, 17-18)




℣. Jesu Kristo gure Jaun**a<u>ren</u>** Aitak
argi ditzala gure bihotzeko **be**giak,
jakin dezagun zer itxarotera dei **<u>e</u>**gin digun. ℟.


Uztailaren 18an

URTEAN ZEHARREKO XVI. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 23 [22], 1-3. 4. 5. 6)



℣. Jauna dut artzain, ez naiz ezeren be**<u>ha</u>**rrean;
larre gurietan etza**<u>na</u>**razten nau,
ur-bazter lasaira eramaten ‘
eta indarrak dizkit **<u>be</u>**rritzen;
bide segurutik narama, ‘
bere izenari ohore **<u>e</u>**ginez. ℟.




℣. Ibar beltz ilunean bana**bil** ere,
ez naiz gai**tza**ren beldur,
Zu nirekin **bai**tzaude;
zure artzain-makilak la**sai**tzen nau. ℟.

℣. Mahaia atontzen **di**dazu
etsaien **be**gi-bistan;
olioz gantzutzen didazu **bu**rua,
gainezka dut e**don**tzia. ℟.

℣. Zoriona eta maitasuna di**tut** lagun,
bizitzako egun **guz**tietan,
eta Jaunaren etxean bi**zi**ko naiz
amaigabeko e**gu**netan. ℟.

Aleluia (*Jn 10, 27*)




℣. Nire ardiek aditzen dute nire ahotsa, di**o** Jaunak;
Nik ezagutzen ditut, eta haiek jarraitu egiten **di**date. ℟.

Uztailaren 25ean

SANTIAGO APOSTOLUA

Erantzun-salmoa (*Sal* 67 [66], 2-3. 5. 7-8)





℣. Erruki bekigu Jainkoa eta bedeinka **gai**tzala,
ager diezagula aurpegi **ar**gia,
ezagut dezaten munduan zure **bi**dea,
nazio guztietan Zugandiko sal**ba**mena. ℟.

℣. Poztu bitez kantari na**zi**oak,
zuzentasunez baitituzu gobernatzen **he**rriak
eta gidatzen munduan na**zi**oak. ℟.

℣. Lurrak bere uzta **e**man du,
Jainkoak, gure Jainkoak, bedeinka**tzen** gaitu.
Bedeinka gaitzala **Jain**koak,
izan diezaiola begirune mundu **o**soak. ℟.

Aleluia






℣. Gure Elizaren izar dirdaitsu, Santiago apos**to**lua:
bakean dago zure **gor**putza,
gure artean bizi da **zu**re aintza. ℟.

Uztailaren 31n

LOIOLAKO SAN IGNAZIO

Erantzun-salmoa (*Sal* 1, 1-2. 3. 4 eta 6)




℣. Zorionekoa gaiztoen aholkuari jarraitzen ez diona,
bekatarien bidean ez da**bi**lena,
ezta lotsagabeen biltzarrean eser**tzen** ere;
baizik eta Jaunaren legean atsegin **du**ena,
haren legea gau eta egun hausnartzen **du**ena. ℟.

℣. Ur-ertzean landaturiko zuhaitzaren antze**ko**a da:
ematen du bere garaian **frui**tua,
eta ez zaio hostorik **i**hartzen;
egiten duen guztia ongi zaio a**te**ratzen. ℟.

℣. Ez horrela gaiztoak, ez **ho**rrela,
haizeak daraman galautsaren antzeko**ak** dira.
Jaunak zaintzen du zintzoen **bi**dea;
gaiztoena, berriz, galdu e**gi**ten da. ℟.

Aleluia (*Mt* 5, 12a)




℣. Poztu zaitezte eta **a**laitu,
handia izango baita zuen saria **ze**ruetan. ℟.


Abuztuaren 1ean

URTEAN ZEHARREKO XVIII. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 78 [77], 3-4. 23-24. 25 eta 54)




℣. Guk entzunak eta i**ka**siak,
gurasoek guri kon**ta**tuak,
kontatuko dizkiogu hurrengo belaunal**di**ari
Jaunaren egintza goresgarriak eta haren ahal**me**na. ℟.



℣. Orduan, hodeiei agindu zi**en** goitik,
eta zeruko ateak ireki **zi**tuen;
mana isuri zien **ja**nari,
zeruko ogia eman **zi**en. ℟.

℣. Aingeruen ogia jan zuen gi**za**kiak,
asetzeko lain janari eman zien **Jain**koak.
Bere lurralde santura eraman **zi**tuen,
berak eskuratutako men**di**ra. ℟.

Aleluia (*Mt* 4, 4b)





℣. Gizakia ez da ogiz baka**rrik** bizi,
Jainkoaren ahotik ate**ra**tzen den
hitz guztitik **bai**zik. ℟.

Abuztuaren 8an

URTEAN ZEHARREKO XIX. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 34 [33], 2-3. 4-5. 6-7. 8-9)






℣. Bedeinkatuko dut aldi **oro** Jauna,
nire ahoan beti haren **go**respena.
Harro nago **Jau**narekin,
entzun bezate apalek eta **poz**tu bitez. ℟.

℣. Handietsi nirekin ba**te**ra Jauna,
gora dezagun elkarrekin ha**ren** izena.
Jaunagana jo nuen, eta **hark** erantzun,
beldur guztietatik nindu**en** libratu. ℟.

℣. Begiratzen diotenak distiratsu e**gon**go dira,
ez zaie aurpegia lotsaz **go**rrituko.
Dohakabeak dei egin zuen, eta **Jau**nak entzun,
eta estualdi guztietatik zu**en** salbatu. ℟.

℣. Kanpaturik dago Jaunaren ain**ge**rua
hari begirune diotenen inguruan,
eta li**bra**tzen ditu.
Dasta ezazue eta ikusi zein o**na** den Jauna;
zorionekoa harengan ba**bes**ten dena. ℟.

Aleluia (*Jn* 6, 51a)




℣. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia, **di**o Jaunak;
ogi honetatik jaten duena betiko **bi**ziko da. ℟.

Abuztuaren 15ean

MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ZERURATZEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 45 [44], 10. 11-12. 16)




℣. Errege-alabak dituzu zeure aukeratu**en** artean,
zure eskuinean erregina, urre finez **a**paindua. ℟.

℣. Entzun, alaba, eta ikusi, makur ezazu **be**larria,
ahaztu zeure herriaz eta aita**ren** etxeaz. ℟.

℣. Zoraturik dago erregea zure e**der**tasunaz;
bera duzu jaun, egiozu **ahus**pez agur. ℟.

℣. Pozik eta alai da**ra**matzate,
eta erregearen jauregira **sar**tzen dira. ℟.

Aleluia




℣. Zerura jasoa izan da Mari**a** Birjina;
pozik daude ain**ge**ruak. ℟.

Abuztuaren 22an

URTEAN ZEHARREKO XXI. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 34 [33], 2-3. 16-17. 18-19. 20-21. 22-23)



℣. Bedeinkatuko dut aldi **o**ro Jauna,
nire ahoan beti haren **go**respena.
Harro nago **Jau**narekin,
entzun bezate apalek eta **poz**tu bitez. ℟.


℣. Zintzoengana ditu Jau**nak** begiak,
adi haien oihura **be**larriak.
Gaizkileen aurka Jaunaren **aur**pegia,
lurretik ezabatzeko haien o**roi**tzapena. ℟.

℣. Deiadar egiten dute zintzoek, eta **Jau**nak entzun,
larrialdi guztietatik li**bra**tzen ditu.
Hurbil zaie Jauna bi**hotz**-hautsiei,
salbatzen ditu barne-**e**roriak. ℟.

℣. Zoritxar asko izaten **du** zintzoak,
baina guztietatik libra**tzen** du Jaunak.
Hezur guztiak zaint**zen** dizkio,
bat bakarra ere ez dio**te** hautsiko. ℟.

℣. Gaiztakeriak hiltzen **du** gaiztoa;
zintzoari gorroto diotenek zigorra du**te** izango.
Jaunak askatzen du bere zerbitzari**en** bizia,
harengan babesten direnek ez dute zigo**rrik** izango. ℟.

Aleluia (Ik. *Jn* 6, 63c. 68c)




℣. Zure hitzak, Jauna, espiritu eta **bi**zi dira;
Zure hitzek betiko bi**zi**a dute. ℟.

Abuztuaren 29an

URTEAN ZEHARREKO XXII. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 15 [14], 2-3a. 3b-4b. 5)




℣. Akatsik gabe eta zuzen joka**tzen** duena;
(-2) bihotzean egiazale i**zan**
eta mingainaz inor belzten **ez** duena. ℟.

℣. Hurkoari gaitzik egiten **ez** diona,
auzokoa iraintzen ez **du**ena.
Jaunak baztertua gutxiesten due**na**
eta jainkozaleak ohoratzen **di**tuena. ℟.

℣. Dirua lukurreriaz mailegatzen **ez** duena
ezta errugabearen kaltetan eskupekorik har**tzen** ere.
Horrela jokatzen due**na**
ez da sekula kolo**ka** egongo. ℟.

Aleluia (*St* 1, 18)




℣. Aitak, hala nahita, bizia eman digu egiaren **me**zuaz,
sorkari guztien artean lehenengoak izan gai**te**zen. ℟.


Irailaren 5ean

URTEAN ZEHARREKO XXIII. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 146 [145], 6c-7. 8-9a. 9b-10)




℣. Betiko eusten dio Jaunak bere leialta**su**nari.
Zapalduen eskubideak defenda**tzen** ditu,
gose direnei ogi**a** ematen.
Jaunak askatzen di**tu** presoak. ℟.



℣. Jaunak zabaltzen ditu itsuen **be**giak,
Jaunak altxatzen kon**kor**tuak,
Jaunak maita**tzen** zintzoak,
Jaunak ditu etor**ki**nak zaintzen. ℟.

℣. Umezurtzei eta alargunei zutik di**e** eusten,
baina gaiztoen nagusigoa **i**raultzen.
Jauna errege da **be**tieran,
zure Jainkoa, Sion, errege mende**ren** mendetan! ℟.

Aleluia (*Mt* 4, 23)





℣. Erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten zuen Je**su**sek,
eta herrian gaitz guztiak sendatzen **zi**tuen. ℟.

Irailaren 12an

URTEAN ZEHARREKO XXIV. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 116 [114], 1-2. 3-4. 5-6. 8-9)






℣. Maite **dut** Jauna,
entzun baitu nire erregu-**oi**hua,
makurtu baitu nigana be**la**rria,
dei egin diodan e**gu**nean. ℟.

℣. Herio-lokarriek inguratu ninduten,
Herio-leizeko sareak **a**tzeman;
estu eta la**rri** nintzen.
Baina dei egin nion Jaunaren i**ze**nari:
«Arren, Jauna, atera naza**zu** onik». ℟.

℣. Errukiorra eta zintzoa **da** Jauna,
gupidatsua gure **Jain**koa.
Jaunak zaintzen ditu **xu**meak;
lur jota nengoen, eta sal**ba**tu nau. ℟.

℣. Bai, libratu dit bizia heri**o**tzatik,
begiak malkotik, oinak e**ror**tzetik.
Jaunaren aurrean ibi**li**ko naiz
bizidunen lu**rral**dean. ℟.

Aleluia (*Ga* 6, 14)




℣. Jainkoak libra nazala ha**rro**tzetik,
gure Jaunaren gurutzean i**zan** ezik,
gurutze ho**rri** esker
mundua hilik baitago niretzat, eta ni mundua**ren**tzat. ℟.

Irailaren 19an

URTEAN ZEHARREKO XXV. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 54 [53], 3-4. 5. 6 eta 8)





℣. Ene Jainko, salba nazazu zeure ize**na**gatik,
defendatu nire auzia zeure a**hal**menaz.
Entzun, ene Jainko, nire **o**toitza,
makurtu belarria nire ahoko hi**tze**tara. ℟.

℣. Nire aurka jaiki dira **ha**rroak
eta ni hil nahian dabiltza gogor**za**leak,
Jainkoaren axola**rik** gabe. ℟.

℣. Baina nik Jainkoa dut la**gun**tzaile,
Jauna neure biziaren **ba**besle.
Sakrifizioak eskainiko dizkizut bihotz-**bi**hotzez,
zure izena goretsiko, Jauna, ona za**re**lako. ℟.

Aleluia (Ik. *2 Ts* 2, 14*)*






℣. Honetarako deitu gaitu Jainkoak Berri Ona**ren** bidez,
Jesu Kristo gure Jaunaren aintza es**ku**ratzeko. ℟.

Irailaren 26an

URTEAN ZEHARREKO XXVI. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 19 [18], 8 eta 10. 12-13. 14)




℣. Jaunaren legea bikain, barrena arnasbe**rri**tzen du;
Jaunaren manamendua fidagarri, heldugabea zuhur e**gi**ten du.
Jaunaganako begirunea garbi, iraunkor **be**tiko,
Jaunaren erabakiak egiazko, den-denak **bi**dezko. ℟.

℣. Zure morroi honek haietan du **ar**gia,
haiek gordetzean sari **han**dia.
Nork ezagutu bere hutse**gi**teak?
Garbi nazazu ezkutuko erru**e**tatik. ℟.

℣. Gorde nazazu orobat harroke**ri**atik,
ez dakidala na**gu**situ;
horrela, akats gabe i**zan**go naiz,
bekatu larri**tik** libre. ℟.

Aleluia (Ik. *Jn* 17, 17b. a)




℣. Zure hitza da egi**a**, Jauna;,
sagara gaitzazu egi**a**ren bidez. ℟.

Urriaren 3an

URTEAN ZEHARREKO XXVII. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 128 [127], 1-2. 3. 4-5. 6)




℣. Zorionekoa Jaunari begirune **di**ona
eta haren bideetan **da**bilena!
Zeure lanaren fruitutik du**zu** jango,
zoriontsu izango zara eta ongi zai**zu** joango. ℟.

℣. Emaztea mahatsondo emankorraren **an**tzeko
zure e**txe** barnean;
seme-alabak olibondo-kimuen **an**tzeko
zure mahai in**gu**ruan. ℟.

℣. Hara nola izango den bedeinkatua ‘
Jaunari begirune **di**ona!
Bedeinka zaitzala Jau**nak** Siondik,
goza zaitezela Jerusalemen zorionaz ‘
zeure bizitzako egun guz**ti**etan.
Ikus ditzazula zeure haurren haurrak! Bakea Is**ra**eli! ℟.

Aleluia (*1 Jn* 4, 12b)





℣. Elkar maite **ba**dugu,
Jainkoa gu**gan** dago,
eta haren maitasuna bere betera iritsi da **gu**gan. ℟.

Urriaren 10ean

URTEAN ZEHARREKO XXVIII. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 90 [89], 12-13. 14-15. 16-17)






℣. Irakats iezaguzu geure egunen kontua e**ra**maten,
zuhurtasunaren muinaz jabetu **gai**tezen.
Itzul zakizkigu, Jauna! **Noiz** arte?
Erruki zaitez zeure zerbitza**ri**ez. ℟.

℣. Ase gaitzazu goizero zeure mai**ta**sunaz,
poztu gaitezen eta zoriontsu izan geure egun guz**ti**etan.
Eman zoriona orain arteko atsekabe-egu**nen** ordez,
ikusi ditugun urte gorrien **or**dez. ℟.

℣. Ikus bezate zure zerbitzariek zure egintza,
eta haien seme-alabek zure **dir**daia.
Betor gugana Jaunaren, gure Jainkoaren, gozo**ta**suna
eta sendo beza hark gure esku**en** lana;
sendo dezala, bai, gure **la**na. ℟.

Aleluia (*Mt* 5, 3)




℣. Zorionekoak gogoz behartsu di**re**nak,
berena baitute Jainkoaren e**rrei**nua. ℟.

Urriaren 17an

URTEAN ZEHARREKO XXIX. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 33 [32], 4-5. 18-19. 20 eta 22)




℣. Zuzena da Jau**na**ren hitza,
fidagarria hark egin duen **guz**tia.
Justizia eta zuzenbidea **du** maite,
Jaunaren maitasunaz dago lu**rra** betea. ℟.

℣. Jauna arduratzen da begirune **di**otenez,
haren maitasunean itxaroten **du**tenez,
haiek heriotzatik li**bra**tzeko
eta gosetean bizirik **gor**detzeko. ℟.

℣. Guk Jaunagan dugu **es**perantza,
bera dugu laguntzaile eta **ba**besle.
Betor gurekin, Jauna, zure mai**ta**suna,
Zugan baitugu jarria i**txa**ropena. ℟.

Aleluia (*Mk* 10, 45)




℣. Gizonaren Semea besteen zerbitzari izatera eto**rri** da
eta bere bizia denen alde ordainsari e**ma**tera. ℟.

Urriaren 24an

URTEAN ZEHARREKO XXX. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 126 [125], 1-2b. 2c-3. 4-5. 6)




℣. Jaunak Sionen zoria aldatu zue**ne**an,
ametsetan bezala **geun**den.
Barrez bete zitzaigun orduan **a**hoa,
poz-oihuz **min**gaina. ℟.

℣. Jentil-herrietan ere esan **zu**ten:
«Handikiro jokatu du Jaunak haien **al**de».
Handikiro jokatu du Jaunak gu**re** alde,
eta poza**rren** gaude! ℟.

℣. Aldatu, Jauna, gure zo**ri**a,
euri-jasek basamortua be**z**ala.
Malkoz erein **zu**tenek
pozez bil**tzen** dute. ℟.

℣. Negarrez joan **zi**ren,
hazi-zorroa era**ma**nez;
poz-oihu**ka** datoz,
gari-balak **e**karriz. ℟.

Aleluia (*2 Tm* 1, 10b)




℣. Kristo Jesus gure salbatzaileak heriotza eze**rez**tu du,
eta bizia argitu Berri O**na**ren bidez. ℟.

Urriaren 31n


URTEAN ZEHARREKO XXXI. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 18 [17], 2-4. 47 eta 51ab)




℣. Maite zaitut, Jauna, ni**re** indar!
Jauna da nire haitz, nire gaz**te**lu,
bera nire as**ka**tzaile. ℟.

℣. Ene Jainko, ene harkaitz ba**bes**garri,
ene babeski eta salbamen-**in**dar,
ene gordeleku go**res**garri.
Dei egin nion Jaunari, ‘
eta salbatu ninduen etsai**en**gandik. ℟.



℣. Gora Jauna! Bedeinkatua nire **har**kaitza!
Goratua nire Jainko salbatzai**le**a,
Garaipen handiak eman dizkio erre**ge**ari,
maitasuna agertu dio bere gantzu**tu**ari. ℟.

Aleluia (*Jn* 14, 23)




℣. Ni maite nauenak gordeko du nire hitza, **di**o Jaunak;
nire Aitak maite **i**zango du,
eta Aita eta biok harengana eto**rri**ko gara. ℟.

Azaroaren 1ean

SANTU GUZTIEN FESTABURUA

Erantzun-salmoa (*Sal* 24 [23], 1-2. 3-4b. 5-6)




℣. Jaunarena da lurra, eta lurra bete**tzen** duena,
mundua eta bertan bi**zi** direnak,
hark ezarri baitu itsaso**en** gainean,
hark finkatu lur azpiko ibai**en** gainean. ℟.

℣. Jaunaren mendira **nor** igoko?
Haren toki santuan **nor** egongo?
Eskuak errugabe eta bihotza garbi **di**tuena,
sasijainkoetara jotzen **ez** duena. ℟.

℣. Horrelakoa bedeinkatu**ko** du Jaunak,
justizia egingo dio Jainko sal**ba**tzaileak.
Hau da haren bila saiatzen den **gi**zaldia,
Jakoben Jainkoaren aurpegi bila **da**bilena. ℟.

Aleluia (*Mt* 11, 28)




℣. Zatozte Nigana nekatu eta zamatu guz**ti**ok,
eta Nik arinduko zaituztet, di**o** Jaunak. ℟.


Azaroaren 2an

HILDAKO FEDEDUNEN OROIPENA

Erantzun-salmoa (*Sal* 27 [26], 1 eta 4abcd)



Aleluia (*Mt* 25, 34)




℣. Zatozte, nire Aitaren bedein**ka**tuok;
hartzazue munduaren **sor**tzetik
zuentzat prestaturik dagoen **e**rreinua. ℟.

Azaroaren 7an

URTEAN ZEHARREKO XXXII. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 146 [145], 6c-7. 8-9a. 9b-10)





℣. Betiko eusten dio Jaunak bere leialta**su**nari.
Zapalduen eskubideak defenda**tzen** ditu,
gose direnei ogi**a** ematen.
Jaunak askatzen di**tu** presoak. ℟.

℣. Jaunak zabaltzen ditu itsuen **be**giak,
Jaunak altxatzen kon**kor**tuak,
Jaunak maita**tzen** zintzoak,
Jaunak ditu etor**ki**nak zaintzen. ℟.

℣. Umezurtzei eta alargunei zutik di**e** eusten,
baina gaiztoen nagusigoa **i**raultzen.
Jauna errege da **be**tieran,
zure Jainkoa, Sion, errege mende**ren** mendetan! ℟.

Aleluia (*Mt* 5, 3)






℣. Zorionekoak gogoz behar**tsu** direnak,
berena baitute Jainkoaren e**rrei**nua. ℟.

Azaroaren 14an

URTEAN ZEHARREKO XXXIII. IGANDEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 16 [15], 5 eta 8. 9-10. 11)




℣. Jauna, Zu zaitut neure ondarea, neure e**don**tzia,
zure esku dago nire **zo**ria.
Begi aurrean dut Jauna e**ten**gabe;
hura eskuinean dudala, ez naiteke **dar**dara. ℟.

℣. Horregatik, alai dut bihotza, pozik **e**rraiak,
atsedenean lasai **gor**putza.
Ez baituzu nire bizia Herio-leizera e**go**tziko,
ezta ere zeure fededuna hilobian gal**tzen** utziko. ℟.

℣. Bizirako bidea erakutsiko **di**dazu;
alaitasunez beteko nauzu zeure **au**rrean,
zorionez betiko zeure **on**doan. ℟.

Aleluia (*Lk* 21, 36)




℣. Egon erne eta egin otoitz u**ne** oro,
zutik egon ahal zaitezten Gizonaren Semearen **au**rrean. ℟.

Azaroaren 21ean

JESU KRISTO GURE JAUNA, DIREN GUZTIEN ERREGEA

Erantzun-salmoa (*Sal* 93 [92], 1ab. 1c-2. 5)




℣. Errege da Jauna, os**pez** jantzia,
Jauna indarrez jantzia eta in**gu**ratua! ℟.

℣. Sendo ezarria da**go** mundua,
ez dago **ko**loka.
Zure tronua sendo ezarria dago betida**nik**,
betiko**a** zara Zu! ℟.

℣. Zure erabakiak fida**ga**rri dira;
zure etxea santutasunez eder, Jau**na**,
betiereko **e**gunetan. ℟.

Aleluia (*Mk* 11, 10)



℣. Bedeinkatua Jaunaren izenean dato**rre**na!
Bedeinkatua datorren errei**nu**a,
gure aita Daviden **e**rreinua! ℟.